

Garazi Enparantza Agirre

F maila • 1 saria

Kaixo Garazi dut izena, 10 urte ditut eta Beasaingoa naiz. Nere zaletasunak kirola, dantza, marraztea eta trikitixa jotzea dira. Oso gogoko ditut futbola eta eskubaloia.

Lagunekin ibiltzea ere asko gustatzen zait.

Hau da bigarren aldia idatz lehiaketan parte hartzen dudana. Oso oso pozik nago aurten lortu dudan sariarekin. Ilusio handiz jasoko dut. Jendea animatzen dut beraiek ere parte hartu dezaten hurrengo urtean. Ea gustatzen zaizuen nere ipuina.



HIZKIEN LAPURRA

Bazen behin Lander izeneko mutil bat. Mutil bihurri xamarra zen eta jolasa asko gustatzen zitzaion, beste askori bezala. Baina Landerrek bazuen berezitasun bat. Landerrek ahalmen magiko bat zuen, ez nola nahikoa, hitzetako izkiak lapurtzen zituen. Eta gainera izki horiek beste hitz batzuri erantsi.

Bere herriko izen gehienak aldatuta zeuzkan. Ze ondo pasatzen zuen bihurrekereiak egiten. Adibidez, alkate jauna noizbait PATXI izan zen, baina Landerrek "P" lapurtu zion eta "S" erantsi. Orduz gero ATXIS zen eta gizajoari "doministikun" erantzuten zioten.

Bazuen KEPA izeneko bizilaguna ere. Ez zuen oso gogoko eta "K" lapurtu zion. Ordutik denek EPA! EPA! agurtzen zuten barrezka.

AITOR lagunari "I" lapurtu zion eta orduz geroztik beti besteen atzetik dabil:

-Ator! Ator!

-Banoa! Banoa!

Eskolan hain bihurria zenez askotan ZIGORRA jartzen zioten. Behin aspertu zenean "Z" lapurtu eta ORRIA hitzari itsatsi zion. Orduz gero eskola ZORRIAZ bete zen eta itxi beharra izan zuten denek burua zorritz josita zutelako.

EKAINA-ri "E" lapurtu eta "BI" erantsi zion. Orain, maiatzaren ondoren hilabete BIKAINA dator, ikasturtea bukatzen dena, iufi!

MUSU hitzari "U" lapurtu zion eta orain norbaiti musu bat eskatuz gero kartak banatzen ditu, MUS!

Eta horrela ibiltzen zen Lander, izkiak lapurtu, izkiak erantsi, beti okerrak egiten. Baina hainbeste bihurrikeriekin lagun guztiak galtzen zituen. Egun batean neska berri bat etorri zen herrira. Lidia izena zuen. Landerri asko gustatu zitzaion eta bere laguna izatea pentsatu zuen.

Horrela elkarrekin jolastera joaten ziren, eskolara laguntzen zion, etxekolanak egiten, parkera joaten ziren, eta abar.

Baina Lander ezin geldi egon eta behin batean "L" lapurtu zion:

-Baina Lander, zer egin duzu? Denek IDIA deituko naute!! Eta MUUUUU egingo didate!! Hori ez dute lagunek egiten.

-Sentitzen dut barkatu, nahi gabe izan da, horrelakoa naiz. Baina ez dakit nola konpondu, ze behin lapurtu diren izkiak ezin dira itzuli.

-Ba zerbait egin beharko duzu benetan nere laguna bazara.

Eta Lander pentsatzen hasi zen. Baina ezin zion "L" berriz jarri herriko "L" guztiak falta zirelako. Denak lapurtu zituen. Nondik lortuko zuen "L" bat? Eta azkenean ideia ikaragarria izan zuen.

-Bat, bi, hiru, "L" jarri eta "L" kendu. Hor duzu berriz ere. Kaixo LIDIA.

-Kaixo ANDER. Zu bai laguna.

Eta orduz geroztik lagun handiak izan ziren betirako. Eta Anderrek muxu eskatu zion eta Lidiak kartak atera zizkion, ja, ja, ja.